

KOMANDANTEAK DORREARI LUR HARTZEKO BAIMENA ESKATU ONDOREN JAZO ZEN EZBEHARRA

123 bidaiari hil dira Peruko Boeing 737 hegazkin batek lurra jota

123 bidaiari eta langile zihoazen Boeing 737 hegazkina lurrera erori zen ostegun iluntzean, Peruko Arequipako aireportuaren inguruetan, eta bidaiari guztiak hil ziren. Peruko abiazio zibilaren historian inoiz gertatu den istripurik larriena da hau.

Agentziak / Lima

PERUKO Faucett konpainiaren Boeing 737 hegazkinak Limatik 1.000 kilometrora hegoaldera dagoen Arequipa hiriko aireportuan lurreratu behar zuen, baina lurrera erori zen ostegun iluntzeko 20.15etan (01.15 GMT).

Hegazkinean zihoazen 117 bidaiariak eta sei langileak hil ziren ezbeharrean. Horietako 33 Txilekoak ziren, bina Boliviakoak, Belgikakoak eta Kanadakoak, bata Brasilgoa eta gainontzeko guztiak peruarrak.

Boeing 737 hegazkina Limako Jorge Chavez aireportutik irteten iluntzeko 19.15etan, eta Tacna hiria zuen helmuga. Baina etenaldia egin behar zuen Arequipan. Oraingo ez da argitu istripua zerk eragin zuen. Hala ere, Juan Malta hegazkineko komandanteak lur hartzeko baimena eskatu zion Arequipako aireportuko kontrol dorreari, eta minutu batzuk geroago jo zuen lurra.

Lekuko batzuek adierazi zuten Boeing 737 abioia lurrera erortzen ikusi zutela, hego bat sutan zuela. Beste iturri batzuen arabera, litekeena da istripua eragitea alde hartan zegoen behe-laino itxiak eta haize indartsuak.

Ezbeharra gertatu eta gutxira, erreskate lanekoek hegazkinaren hondakinak aurkitu zituzten, aireportutik zazpi kilometrora dagoen bi muinoren arteko arroil batean. Defentsa Zibileko kideak, Peruko Indar Armatuak eta Arequipako suhiltzaileak berehala hurbildu ziren hondakinak



Hegazkinean zihoazenen senitartekoak negarrez, Faucett konpainiako ordezkari batek bidaiarien zerrenda irakurtzen duen bitartean.

MARIANA BAZO / REUTER

zeuden lekura, gorpuk ateratzeko eta identifikatzeko.

la ezinezkoa da norbait bizirik irtetea • Patruiletako ardura-dunek azaldu zuten inolako aukerarik ez dagoela norbait bizirik ateratzeko. Horrez gainera, erreskate lanak ordu batzuk luzatu egingo direla esan zuten, hondakinak dauden lekua maldatsua delako. Hegazkinaren hondakinak sutan zeuden aurkitu zituztenean, eta, beraz, pen-

tsatzen dute gorpu gehienak kiskalita egongo direla.

Ezbehar hau da Peruko abiazio zibilaren historian inoiz gertatu den larriena.

Jorge Acuña Faucett konpainiako exekutiboak esan zuen hegazkineko komandanteak bizkarrean eginak zituela 18.000 orduko hegaldiak, eta Julio Paz kopilotuak «ere esperientzia handia» zuela. Carmen Alvarez konpainiako funtzionarioaren hitzetan, hegazkina egoera ego-

kian zegoen eta nahikoa erregaia bazuen helmugara iristeko.

Istripuaren berri izan bezain pronto, Arequipako eta Limako aireportuetara gerturatu ziren hegazkinean zihoazenen senitartekoak. Tentsio une latzak bizi izan zituzten hauek. Faucett konpainiak hegaldi berezia antolatu zuen senitartekoak Limatik Arequipara eramateko, eta hasiera-hasieratik bere gain hartu zituen erantzukizun guztiak, hala nola, kalteordainak. X

Su-etena aldarrikatzeko asmorik ez du agertu IRAk azken komunikatuan

■ Ipar Irlandako biztanleen «itxaropen eta ametsi erantzun patetikoak» eman diela esan du John Majorrek

Agentziak / Belfast

EKAINAREN 10-EAN Ipar Irlandako bake prozesua bideratzeko asmoz alderdi guztien arteko elkarrizketak hasi direla jakinarazi eta gutxi ostegun gauean IRAk komunikatu bat zabaldu zuen. «Gure herriaren gatazka konpontzeko justizia eta baldintzarik gabeko akordioa» behar direla dio IRAk, eta euren «erantzukizunei aurre egiteko prest» daudela berretsi du. Su-etena berriz aldarrikatzeari buruz ez dio ezer ordaindu.

IRAREN komunikatua «jolasak» gogor gaitzetsi zuten atzo John Major Erresuma Batuko lehen ministroak, Bangkoketik BBC kateari eskainitako elkarrizketatan. «IRAKoengandik jasotzen ditugun gisa horretako komentarioekin jendea dagoeneko nekatua dagoela uste dut», esan zuen Majorrek, eta horrelako oharrek «Ipar Irlandako biztanleen itxaropenak erantzun patetikoak» ematen dietela erantsi.

John Bruton lehen ministro irlandarra Majorrekin batera da egunotan Bangkoketik Europako Batasuneko eta Asiako buruzagien arteko bilakura batean, eta honek Sinn Fein alderdi errepublikarrak dei egin zion, «urgentziaz IRAri su-etena berritzeko eskal diezaion». Brutonek adierazi zuenez, «orain Sinn Fein dago gokia ahalegintzea. Ez dugunahi beste inor hil edo besterik gal dadin, eta horretatik da hain premiazkoa».

Ipar Irlandako unionistak artean ere erantzun gogorra jaso ditu IRAREN azken komunikatuak. Ian Paisley UDP buruzagiak IRA bere buruzagien bake prozesutik kanpo uzteko ari dela esan zuen: «Bake garaia jende honek -IRAK- kontsezioak amaitu egin direla ikus dezan. Ez badira prozesu demokratikoan sartzen, beraiek dira kanpoan geratzen direnak, ez beste inork utzirik».

Joe Hendron SDLP alderdi ko burua, aldiz, harrituta zuten IRAREN azken komunikatuen edukiagatik, eta erantzunak erantzunak emanak dako eta, hara, Irlandako irakunde jende gehienaren nahia azaltzen ari dela esan zuen.

Otsailaren 9an IRAk Londresen lehertarazitako bakeak amaitu egin zuen 1994ko abuztuaren hasitako su-etena Sinn Feinek komenigarri iriziz alderdi guztien arteko elkarrizketen hasierari datuz jartzea IRAri su-etena eskatu aurretik. X

Kubaren eta EEBBen arteko ika-mikak areagotu egin dira antikastristek gaurko iragarri duten operazioa dela-eta

■ Clintonek ez du ametituko hegazkin gehiago botatzea eta Kubak probokazioei erantzungo die

Agentziak / Habana

MIAMIN exiliatuak dauden kubatarak, orain astebete Kubak Hermanos al Rescate erakunde antikastristaren bi hegazkin bota zituen lekura hurbilduko dira gaur, hildako pilotuak omentzeko. Hermanos al Rescate taldeko presidentek, Jose Basultok, gaur hamabost itsasontzi eta bi hegazkin gune horretara helduko direla iragarri du aurreko egunetan. Bien bitartean, Kubako eta Estatu Batuetako agintariek ika-mikan jarraitzen dute botatuko antikastristen hegazkinen afera dela eta. Hala ere, pixka bat arindu egin zen atzo tentsioa.

Gaurko iragarrita dagoen operazioaren gainean, Roberto Ro-

baina Atzerri ministro kubatarak «ekitaldi hori nazioarteko uretan egiten badute, egia izenean, ez da probokaziorik izango», adierazi du New Yorken. Habanan ere, ministerio horretako iturriek jakinarazi dutenez, erakunde antikastristak untiak «Kubako ur eremutik kanpo gelditzen badira ez da arazorik izango, baina gure uretan edo aire eremuan sartuz gero, Kubak sarri askotan esan du dagoeneko hori eragozteko baliabide guztiak erabiliko dituela».

Carlos Fernandez de Cossio, Kubako Atzerri Ministerioko Iparramerikarako zuzendariak esan duenez, Kubak beste bortsaketarik izan ez dadin «beharrezko neurriak» hartuko ditu.

«Baina itaundu beharko litzatekeena da Estatu Batuetako Gobernuak zer egingo duen, eta zein neurritan ametitzen dituen edo babesten dituen ekintza hauek», erantsi du Fernandez de Cossio. Honen arabera, Estatu Batuek «bitarteko politiko, ekonomiko, teknologiko eta juridiko nahikoak dituzte probokatzailen asmoz berri izan eta eragozteko».

Etxe Zuriak, berriz, Kubari ohartarazi dio ez duela «beste erasorik ametituko», eta kostazainei Hermanos al Rescate erakunde untiarekin batera joateko agindu diela jakinarazi du. Etxe Zuriko bozeramaileak, hala ere, argi azaldu zuen atzo Bill Clinton presidentek agindutakoa, «ezbairik gabe argi gera da-

din EEBBetako unti eta hegazkin ezin dutela baimenik gabe Kubaren eremuan sartu. Debequari kasurik egiten ez diotenen aurka naurriak hartuko dira».

Miamiko Kostazaintza Zerbitzuko bozeramaile batek adierazi duenez, Hermanos al Rescate erakunde operazioaren zaintze lanetarako hamabi unti eta hegazkin bat erabiliko dituzte lan honetan.

EEBBetatik abiatutako hegazkinak egin izan dituzten aire eremuaren bortxaketen inguruan informazio zabala argitaratu zuen atzo Kubako Gobernuak, eta horren arabera azken 20 hilabetetan 25 hegazkin sartu dira baimenik gabe Kubako aire eremuan. X